



## Tolosako Gerontologikoaren beharraz, hainbat ikuspegi

**PLATAFORMA** ▶ Larunbatean manifestaziora deitu du, herriaren nahia entzunarazteko

**UDALA** ▶ Zentro berriaren aurreproiektua aurkeztu du; Alhondigan joango da

**TOLOSA BIZIRIK** ▶ Bat egin du Gerontologikoaren aldeko plataformaren deialdiarekin ▶ 2

### Kontzertua eskaini dute bost ikastetxetako ikaslek

**LEITZA** ▶ Leitzako Amazabal Institutuan ikasten duten gazteen batera, Berako, Doneztebeko, Lekarozko eta Altsasuko beste 500 ikaslek kontzertua eskaini zuten, atzo, pilotalekuan. Euskal kantak eta nazioarteko doinuak izan ziren entzungai. J. ASTIBIA ▶ 7

**ALEGIA** ▶

### Larrañaga heriotzaren korridoretik kanpo izango da laster

Familiak epaiketa berria eskatu du, izan zuena ez zelako justua izan ▶ 5



**ceinpro**  
Diseinu eta kreazioahalmenean oinarritutako heziketa

- **DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**  
ARTE GRAFIKOETAKO FAMILIA PROFESIONALEAN GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA  
IRAUPENA - 2 Ikasturte / 2000 ordu  
SARRERA - UBI - LH II - IEE II - edo HSACL BATXILERGOA gainditua
- **ARTE GRAFIKOEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA**  
ARTE GRAFIKOETAKO FAMILIA PROFESIONALEAN ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA  
IRAUPENA - 2 Ikasturte / 2000 ordu  
SARRERA - 2. BBB - LH I - IEE I - edo DBH gainditua

Hertz Pasealekua, 95  
20008 Donostia  
Gipuzkoa  
Tel: 848 910 873  
Fax: 848 310 875  
[www.ceinpro.es](http://www.ceinpro.es)

**IBARRA-TOLOSA** ▶

### Lauburuk «oso denboraldi ona» egin du

Laskorainek 5. bukatu du Liga ▶ 3, 6



Jubilatuak, bazkarian. HITZA

**BEDAIO** ▶

### Beraien eguna ospatu dute jubilatuek

40 bat lagun elkartu zen bazkarian ▶ 5

GERONTOLOGIKOA ▶

# Gerontologikoa eztabaidagai

Alde batetik, Tolosa Bizirik plataformak eta gizarte mugimenduak manifestaziora deitu dute; eta, bestetik, Udalak aurreproiektu bat aurkeztu zuen atzo

ESTI EZEIZA

Iazko urtearen hasieran, Gipuzkoako Foru Aldundiak Tolosaldeko Gerontologikoa itxia erabaki zuenetik, hainbat eta hainbat eztabaida sortu dira gai honen inguruan. Honen harira, alderdi ezberdinek, ekitaldi eta agitasmo ezberdinak aurkeztu dituzte:

## GERONTOLOGIKO BERRIAREN ALDEKO PLATAFORMA

**Manifestaziorako deia.** Dagoeneko 14 hilabete pasatu dira Esther Larrañaga diputatuak (EAJ) Euskal Herria plazako Gerontologikoa itxia agindu zuenetik. Denbora tarte horretan plataformak hainbat eta hainbat kanpaina eta ekitaldi antolatu ditu, «konponbide duina exigitzeko Gerontologikoaren itxierak sortu duen arazoari». Hauen ustetan, «Udal politikoez geldotasunez aztertu dute gai hau, denbora pasatzen utzi dute, arazoaz ahaztu ahal izateko». Horrela, orain, «arazoa larritu egin da», «alde batetik, gero eta denbora gehiago itxaron behar duelako jendeak Tolosaldean erresidentzi plaza bat lortzeko; eta bestetik, gero eta zahar gehiago desterratu direlako beste eskualdeetako egoitzetan. Bestalde, salatzen dute «Gipuzkoako Batzar Nagusietako EAJ eta EA alderdien ordezkari politikoen atek itxi izana, eta entzun nahi izaten, haiek hartutako erabakiek izandako ondorioak». Gauzak horrela, Gerontologiko berriaren aldeko plataformak uste du, garaia dela «ordezkari politikoez behingoz kontura daitezen zer nahi duen Tolosaldeko herriak». Eta hori adierazteko, manifestazioa egingo dute larunbat honetan, eguerdiko 12:00etan, Triangulotik abiatuta.



Udaleko ordezkariak, atzo emandako prentsaurrekoan. E. EZEIZA



Gerontologiko berriaren aldeko plataformako hainbat kide. N. LABAURU



Tolosa Bizirik herri ekimeneko ordezkariak, atzo, prentsaurrean. E. E.

## TOLOSAKO UDALA

**Gerontologiko berriaren aurreproiektua.** Tolosaldeko Udalak adineko pertsonentzat zentro bat sortzea sustatzen ari da. Jokin Bildarratz alkateak udalbatza osatzen duten alderdi guztietako ordezkariekin batera, adineko pertsonentzat egoitza integrala egiteko interproiektua aurkeztu zuten atzo udalbatzean. Egoitza hau Alhondigaren eraikiko dute, frontoia, Artxioba eta San Frantzisko elizaren atzealdean. Udalekoek jakitera eman dutenez, «aurreko urtean jakinarazi zenetik zentro gerontologikoa desagertuko zela, alderdi guztiak bat ziren egoera horri aurre egin behar zitzaioela. Horrela, konponbide bat bilatu nahian, diskrezio osoz lanean aritu da Udala». Bildarratzek azpimarratu zuenez, «nahiz eta jendeak esan geldi egon garea, demagogia eta ideologiengainetik, ordezkari politikoen guztiek bat egin dugu lan honetan». Jose Mari Vieites Ezker Batuko zinegotziak argi utzi nahi izan zuen «Udala ez dela Gerontologikoaren itxieraren erantzule, hau ez baita bere eskumenen artean sartzen». Bestetik, epean inguruan eta galdetutakoan, oraindik zehazteke daudela esan zuen alkatea: «Oraindik gestio garaia da, eta hitzarmenak posibilitatu behar dira, dirua lortzeko, finantziazioa aurkitu beharra dago». Honez gain, onartu zuten Gerontologiko berriaren aldeko plataformak oraindik ez duela proiektu honen berri, nahiz eta jakin Udala lanean ari dela.

## TOLOSA BIZIRIK HERRI EKIMENA Gerontologikoaren aldeko plataformarekin bat egin.

Tolosa Bizirik herri plataformak bere atxikipena adierazten dio Gerontologikoaren aldeko plataformak egindako manifestazio deia. Aldi berean, «alderdien arteko mahaie-

## Udalak aurkeztutako proiektua

Gerontologiko berriaren kostua 9.000.000 eurotako da. Bere barnean 100 egoitza aurkeztutako lekua egongo da; gainera, 40 pertsonentzat exebizitza tutelatuak eraikiko dituzte, eta 60 laguntzat lekua duen eguneko zentroa eratuko da. Horretarako, Tolosaldeko Udalak Alhondiga deituriko lur zorua erabiliko du. Gaur egun, bertan lur gainera parkinga dago eta ura eta argiaren egoitza zaharra. Eraikin berri honek beharrezko zerbitzu guztiak beteko lituzke: denda, tanatorioa, kafetegia, podologia, ileapaindegia, bisita gela, egongelak eta abar. Planoko irudian ikusi daitekeen bezala, L itxura izango luke, eta hiru zatitan banatuta egongo litzateke. Parean, epaitegia eta berdegune bat izango litzatekeela ere azaldu dute Udala ordezkariak.



Aurreproiektuaren planoa. E. E.

an helburu beraren alde konpromiso lanean jarraitzeko erabakia berregin». Bestetik, salatu dituzte «PNVren utzikeria eta mahaiaren funtzionamendua eragozteko alkatetzatik agiten ari den amarruak». Tolosa Bizirik-en ustetan, «egun errealtate ukazezina da Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Gerontologikoaren aldeko plataformak eta alderdi politikoen gehienek, Tolosa Bizirik barne, eta PNVren parte-hartzerik gabe, onartu duten dokumentuek ez bairik gabe onartzen dute erresidentzi plazaren beharra». Udalarri exijitu nahi dio plataformak zentro berri baten alde egiten duen aldarria entzun dezan, itxierak ekarri dituen beharrei erantzuteko.

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Furgoneta.** Vito CDI 110. 2002. urtekoa. Kanpinerako prestatura. Telefonoa: 685 72 50 53.  
**Autoa.** Renault Kangoo RXE DTI. 2000koa. 88.000 kilometro. Estrak. Deitu 943 69 71 94ra.

**Andoainen administrazio lanak egiten dituen enpresa batek telefono bidezko kibraketa kanpaina bat egiteko langile bat behar du.**

### Eskatzen da:

- Telefono bidez eginko lanetan (kobrantza, salmenta, bezero arreta...) eskarmentua izatea.
- Erabilizaille mailako informatika ezagutza.
- Kontabilitate ezagutza izatea baloratuko da.
- Lehenbailehen lanean hasteko aukera izatea.

### Eskaintzen da:

- Astelehenerdik ostiralera 6 orduko lanaldia, 15:00etatik 21:00etara.
- 2 hilabeteko lana, emandako errendimenduari arabera luzatu daitekeena.

**Interesatuak 10:00etatik 13:00etara deitu 943 30 43 35 telefonora maiatzaren 26a baino lehen.**

## ZABALA DESGUAZEA

Beotibar Industrigunea, 18  
BELAUNTZA

Tel./Faxa: 943 67 17 90  
696 593 347



## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** «Zer iruditzen zaizu Voith-Gorostidi exebizitza tasatuetako zozketan parte hartu ahal izateko jarritako baldintzak?». Eman zure iritzia eztabaida honetan.

ARETO FUTBOLA ▶

# 5. postu «dotorean», Laskorainek agur esan dio denboraldiari

## Audio taldearen aurkakoan 3 eta 9 irabazi zuen 2005-06 denboraldiko azken «partida samurrean»

**NOELIA LATABURU**

Audio taldearen aurka eskuratutako azken hiru punturekin agur esan dio Laskorainek 2005-2006 denboraldiari. Horrenbestez, bosgarren postu «dotorean» amaitu du bere hamahirugarren denboraldia, «maila altuko beste urte bat borobilduz». Horitxoek «azken hilabeteetako neurketarik sa-

murrenean» 3 eta 9 irabazi zuten, Usabaleran hiru puntu gehiago ekarriz. Iñaki Egizabal entrenatzaile tolosarrak informatu duenez, azken norgehiagokak «ez zuen mami lodiegirik izan»; ikastolakoak estraineko minututik azkenegarte nagusitu baitziren, nola jokoan hala markagailuan. Atsedendirako 1 eta 3koa, amaierako 3 eta 9koa, kantxan ikusitakoar-

ren arabera emaitza laburrak suertatu zirela esan daiteke.

Golegile laskoraindarrak Kalexio, Murgi, Telletxea, Gil, Amatriain, Yustos eta Otxoa izan ziren, azken bi ibarretrek bina gol sinatu zituztelarik. Entrenatzaileak Amatriainen gola go-raipatu nahi izan zuen, «ez dituelako asko sartzen»; horrengatik, «bereziki» ospatu zituzten jokalariek. Halaber,

Otxoa jokalariek sartu zituen biak ere «Amatriainenak bezain bereziak» izan ziren.

«Mikel Altunaren omenez»

Tolosara bueltan, hain zuzen, txapelketaren azterketa egiten zuen Laskorain taldeko delegatuak. «Aurten pairatutako arazo, oztopo eta lesio guztiak kontuan hartuta, maila zorrotz honetako lehiaketan bosgarren postua eskuratzeak badu bere meritua. Pare bat talde istorikok kategorioa galdu duenean, txapelketako gipuzkoar talderik onena izan gara, eta hau ere garrantzitsua da guretzat; ezin gara kexatu».

Egizabal entrenatzaileak bestalde, Mikel Altuna jokalaria ekarri zuen gogora. «Gure golegile onenarik gabe aritu gara, 10 dortsaldun jokalaririk gabe eta futbolzale orok daki honen garrantzia. Mikel Altuna pitxitxi handiak urte gogorra

### BALANTZEA

Oztopoak aintzat hartuta, bosgarren postua eskuratzeak «meritu handia» duela esan dute ordezkariak

igaro du iazko ezbeharretik ezin osatuta, eta amaitu berri dugun denboraldia, erdietsitako bosgarren postua eta 46 puntuak berarentzako dira, isuri ditugun izerdi tanta guztiak bezalaxe».

Entrenatzailearen adierazpen hauekin, nola ez, bat egiten zuten taldea osatzen duten gainontzeko arduradun eta jokalariek.

Datorren asteotan heldu den denboraldiaren prestaketa lanetan hasi beharko du Gipuzkoako hirugarren areto futbol taldea bihurtu den Laskorain Kirol Elkarteak.

KULTURA ▶

## Lau Haizetara orkestra, gaur, Musikariaren harira

**N. LATABURU**

Musika Eskolak antolatutako XII. Musikariaren baitan, kontzertuen egitarauak aurrera darrai. Hala, gaur, 19:00etatik aurrera, Musika Eskolako areto nagusian, Lau Haizetara akordeo orkestrak emaldia eskainiko du. Pieza morderoa joko dituzte akordeoi-joleek, saxoaz eta abeslari-iez lagunduta.

Lau Haizetara Akordeo Orkestra Hernani, Irun, Lezo eta Mutrikuko musika eskolako akordeoi ikasleez osatua dago. Hainbat proiektutan elkarrekin aritu ondoren (EHME akordeo orkestra) eta ikasleen goi maila eta go-goa ikusita, talde berri hau sortzea erabaki zen, Maribel Insaustik, Josu Sarasak, Joxean Anduagak eta Julia Iriondok zuzenduta.

Lehenengo kontzertua Lezoko Gezala auditoriumean eman zuten 2005eko martxoan, Lezoinu 05 kontzertu zirkloaren baitan. Arrakasta handia lortu ondoren hainbat kontzertu dauzka programatuak Zarautz, Mutriku, Al-tza, Hernani eta, bukatzeko, Bartzelonan, SMUC Katalunianako Goi Mailako Musika Eskolak gonbidatuta.

KIROLA ▶

## Tolosa Kup-eko komisionan parte hartzeko bilera

### Gaur izango da, 19:30ean, Kultur Etxean

**N. LATABURU**

Ezinezko hitzordua bilakatu da gurean azken urteotan Tolosa Kup futbol txapelketa. Koadrila guztiak batzen dituen torneo herrikoi hau, bada, dagoneko martxan jarri dute. Iaz antolatzaile lanetan jardun zuten gazteek eta animatu diren beste batzuk, Tolosako Udaleko kirol eta gazteria arduradunekin bildu eta aurtengo Tolosa Kup iraletik aurrera antolatzeari ekin nahi zioten. Izango

da aldaketarik txapelketaren baitan; guztiaren antolakuntza komisioko baten bidez bideratu nahi dutela, alegia, Tolosa Kup-aren ardura guztiona behar duela erabaki dutela eta komisioko bilerak sortzea erabaki dute, ekipa guztiak informatuta egoteko eta, batik batik, antolakuntzak eskatzen dituen ardurak banatzeko. Horrenbestez, lehen bilera gaur burutuko dute, 19:30ean, Kultur Etxean —topagunean, lehen solairuan—, aipatu komisioko parte hartu



Bilerak burutu dituzte iazko antolatzaileek eta Udal ordezkariak. HITZA

nahi duten guztiarentzat irekia. Komisioko honetan txapelketaren inguruko erabaki guztiak hartu ahal izatea dute xede eta bertan, gainera, Udalaren or-

dezkariren bat izango dela eman dute jakitera. Hori dela eta, Udaletik deialdi berezia egin nahi diete guztiari komisioko parte hartzeko.

iragarki laburrak ▶

**BASABI Inmobiliaria**

Pablo Gorosabel, 40  
1. pisua - 7. begoa  
20400 TOLOSA  
Tel. eta Faxa: 943 65 55 87  
mug.: 669 368 994

**Alkiza.** Eraikitzen ari diren bi familientzako etxea, erdisotoa eta hiru solairu.  
**Alkiza.** Familia bakarreko txaleta, 4.000 m<sup>2</sup> dituen lursailarekin. 120 m<sup>2</sup> dituzten 3 solairu.  
**Andoain.** Santa Kruz auzoan, 80 m<sup>2</sup> dituen etxebizitza salgai. Erabat berriua. Dena kanpoaldera. Iggogailuarekin. Ikuspegi ederrak.  
**Andoain.** Santa Kruz auzoan, 80 m<sup>2</sup> dituen etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko. Dena kanpoaldera. Iggogailuarekin. Ikuspegi ederrak.  
**Belauntza.** Bi familientzako etxea. Bi solairu, 270 m<sup>2</sup>-ko lursaila.

**Berastegi.** Familia bakarreko txaleta salgai. 3.500 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.  
**Donostia.** Antiguoa auzoan, Eskolta Real, berritutako etxebizitza, kanpoaldera, sartzeko moduan.  
**Elosua.** Berrikuntza behar duen baseria salgai. 35.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.  
**Tolosa.** Zumalakarregin, 150 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Egoera ezin hobean. Garajea aukeran.  
**Tolosa.** Pablo Gorosabel.  
**Tolosa.** Eraikuntza berrian azken etxebizitza salgai. 65 m<sup>2</sup> erabilgarri.  
**Tolosa.** Trinkete plaza, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea

terrazarekin, bainugela eta komuna, garaje itxia.  
**Tolosa.** Santa Mariaren etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna. Egoera bikai  
**Tolosa.** Belatan, trasteleku berriak salgai argiarekin eta aire-erazgailuarekin. 9.480 eurotik.  
**Tolosa.** Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala salgai. Guztia erakusleho.  
**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 45 m<sup>2</sup>-ko lokal ederra salgai. Erakusleho handia.  
**Errioxan.** Txaletak, etxe atxikiak eta etxebizitzak ditugu, Errioxan, Logroño eta Najeratik gertu.

## ZIZURKIL ▶

## 155.275 euroko diru laguntzak elkarteek ekintzetarako

Hilaren 28an amaituko zaie taldeei Udalean eskaerak aurkezteko epea

## ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak elkarteek diru laguntzak jasotzeko deialdia onartu du. Kirola, kultura, hezkuntza, gaztetxo eta euskara inguruko ekintza interesgarriak finantzatzeko emango ditu diru laguntza horiek. Eskaerak hilaren 28a baino lehen aurkeztu behar dira. Guztira, 155.275 euro zuzenduko ditu Udalak diru laguntzetara.

Bi ataletan banatuko dituzte laguntzak: urteko jarduerak eta aldikako jarduerak. Udalak aldikakotzat joko ditu aparteko izaera izateagatik urteko programaketa egite-rakoan aurrez ikusi ez direnak. Kultura eta Euskara edo Kirola eta Gazteria Batzorde-ek erabakiko dute jarduera bakoitza aldikakoa den ala ez.

Diru laguntza eskatu ahal izango du aurretik aipatutako alorretan ekintza interesgarriak bultzatzen dituen irabazi-asmorik gabeko Zizurkilgo edozein pertsona fisiko zein erakunde edo elkarte pribatuk. Bere jardueraren zati garrantzitsu bat udalerraren esparruan garatu behar du, eta diru laguntzak arautzen dituen Udala Ordeantza Orokorrean 5. artikuluan jasotako bestelako baldintzak ere bete behar du. Bertakoa ez izanik ere, Zizurkilentzat interes kulturala duten egitasmoak bultzatzen dituen edozein pertsona fisiko zein erakunde ere aurkeztu ahal izango dituzte eskaerak.

## ALKIZA ▶ KULTUR ASTEA



40 lagun inguruk hartu zuten parte mendi martxan; argazkian, zenbait parte-hartzaile opariek. HITZA

## Datorren urtean berriro egiteko asmoz

Kultur Astearen antolatzaileak gustura daude ekitaldiek emandakoarekin eta jendeak «erantzun» duela deritzote

## IMANOL GARCIA

Gustura daude Alkizako Kultur Asteko antolatzaileak. «Balan-tze ona egin dugu», azaldu dio HITZARI Joxean Zubiaurrek, antolaketaren taldeko partaidea. Kultur Astearen lehenengo edizioa izan da, eta datorren urtean ere antolatzeko asmoa dute. Udala aritu da zeregin horretan, herritar batzuen parte-hartzearekin.

Lau egunetan ekitaldi ugari bildu zituzten, «eta jendeak erantzun zuen», dio Zubiarrek. «Haur zein helduei zuzendutako antolatu genituen». Nabarmenak, adibidez, Rafa Diez eta Joseba Egibarrek egindako mahai-ingurua, «jende ugari izan zen bertan»; edo kantujira, «hainbat herritarrek hartu zuten parte abesbatzarekin batera»; pilota partidak, «ikuslegoa gustura gelditu zen pilotariak emandakoarekin». Mendi ibilaldian ere jende ugari parte hartu zuen, 40 lagun inguruk.



Kantujiran abesbatzakoek gain herritarrek ere parte hartu zuten. HITZA



Herriko gazteek zein haurrek parte hartu zuten pilota partidetan. HITZA

## AMASA-VILLABONA ▶

## 'Aritza' aldizkariaren 13. alea argitaratu dute

## ERREDAKZIOA

Aritza Taldeak Aritza izeneko hilabetekariaren 13. alea argitaratu du. Hiru gai jorratu dituzte hamabi orrialdeko ale horretan, beti ere historiarekin lotuta: sistema foralaren desegite prozesua, Malmasingo Gaztelua eta bertso-larritza (1936). Horrez gain Ezetz asmatu joko-atala izango du irakurleak.

Aldizkaria ondorengo lekuetan eskura daiteke: Larrea okindegia, Kixubi okindegia, Ogi-goxo okindegia, Labezain okindegia (Arroa), Iratzar taberna, Iturrigoxo jatetxe-taberna (Amasa), Villabonako liburutegia, Sahatsa denda, Zizurkilgo Kultur Etxea eta Zizurkil Goiko zentroa.

## VILLABONA-ZIZURKIL ▶

## Ikastolako urteurrenako ekitaldietarako txartelak salgai

## ERREDAKZIOA

Jesusen Bihotza Ikastolaren 40. urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen egunetarako. Horien artean, ostiral honetan Adunako Aburuz sagardotegian afaria antolatu dute eta larunbatean Iker Goenagaren kontzertua Olaederra kiroldegian. Afariaren txartelak 22 euro balio ditu, eta kontzertuarenak 5 euro. Txartelak salgai daude Ikastolako hiru eraikinetan, Shepherd's garagardotegian eta Xiker eta Egarrri tabernetan.

**hitza**  
argazki  
**lehiaketa**

**Sari nagusiaren irabazlea**

**ZORIONAK**  
**IÑAKI GOMEZ ARA**  
(Tolosa)

**Sari nagusia**

**BIDAIA** paregabe bat zure neurria

2 laguntzetan 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan

**Bidaia Agentzia**  
**bidaide**  
www.bidaide.gruposercor.com

Ernioabea, 6-behea • 201 50 Villabona  
Tel.: 943 692 693  
bidaide@gruposer.com



ALEGIA ▶ GIZARTEA

# Larrañaga heriotzaren korridoretik at izango da denbora gutxian

Filipinetako lehendakariak bere ahalmen politikoak alegiar jatorriko presoari aplikatzeko itxaropena du sendiak



Pako Larrañagaren gurasoak, semeari buruzko argibideak emanez, arbixboko irudian. I. TERRADILLOS

NEREA URBIZU

Alegiako familia duen Pako Larrañaga Filipinetako kartzelako korridoretik egun gutxitan atera egingo da. Duela hilabete Filipinetako lehendakari Gloria Macapagalak han dauden 1.200 presoeri *Prerrogativa de gracia* delakoa, barkamena, hain zuzen ere, eman zien, zigorra ezabatzeko ahalmenak dituzenez gero. Heriotz zigorra kentzeko ahalaginak egin ditu lehendakariak, hortaz.

Pako Larrañagaren kasuan, bere kasua itxeko dokumentu bat falta zen: Pako erruduntzat hartzen duen kasu horretan adin txikiko bat zegoen inplikatura, eta dokumentu hori falta zen. Baina behin lortuta, orain itxi egin da. Familiak espero

zuen pausoa emanda dago, beraz.

1.200 presoentzat «oso ona izan da lehendakariak egin duena, baina uste genuen Pakoren kasuan bere ahalmen horiek era zabalagoan aplikatuko zituela», presoaren sendiko batek zioen moduan.

Abokatuaren eta familiaren arabera, «Espainian kondena betetzen jarraitzeko aukera izan daiteke, baina ez dago ziur. Ez da ahaztu behar, ordea, larriena hor dagoela; hau da: Pako errugabea dela eta kartzelan jarraitzen duela».

Dena dela, Pako Larrañagari «bizi itxaropena zabaldu zaio, pauso hau pozgarria izan da eta ikusten zuen zeru grisa urdindu egin zaiou». Hurrengo pausoa indultoa ematea edota

Espainiara estraditatzeara, kondena bertan betetzeko, Javier Viada abokatuaren arabera.

Epaiketa berri bat eskatzen

Epaiketa berria eskatu nahi dute, aurrekoa «arraroa» izan zelako: alde batetik, 35 testiguren deklarazioak ez zituzten aintzat hartu, Pako heriotz zigorrera kondenatu zuen epai-leak bere buruaz beste egin zuen, duela bi hilabete prentsa ezberdinetan Pako defendatzen zuen polizia bat desagertu egin da, fiskalaren testigu babestua alde eginda dago, Larrañagak berak ezin izan zuen testifikatu... «Pako errugabea dela ezin da ahaztu, eta beste pauso bat eman behar da».

BEDAIO ▶ GIZARTEA



40 bat lagun bildu ziren Artubi elkartearen. HITZA

## Jubilatuen Eguna ederra

Artubiko hitzaldian ere jende asko bildu zen

N. URBIZU

Jubilatuen Eguna ederki igaro zuten Bedaion: dena espero zuten bezala atera zen.

10:00etan meza ospatu zuten. Ondoren, hamaiketakoan egin zuten Artubi elkartearen. Segidan, hitzaldia egon zen bertan, Amaia Diaz de Monasterioguren dietistaren esku-

tik. Jende kopuru polita bildu zen horretarako, eta galdera asko egin zituzten entzuleek, zalantzak argitzeko. Gainera, hitzaldia eman zuenak oso era hurbilean zuzendu zitzaion jendeari.

Ordu eta erdi gutxi gorabehera iraun zuen saioak eta, jarraian, bazkaria egin zuten 40 bat jubilatuk han bertan.

PILOTA ▶

## HITZA Txapelketa jokoan

Lau t'erdikoak gaur izango dira Bidanian

N. URBIZU

HITZA Pilota Txapelketan infantilen emaitzak hauek dira: Egiguren-Otaegi 1, Loidi-Maiza I.a 18. Perez-Asurabarrena 18, Zubizarreta-Zubizarreta 16. Aizpuru-Etxaniz 13, Juanarena-Olano 18. Irastorza-Azteka 9, Urrutia-Zubizarreta 18.

Alebinetan, Zelaia-Labaka 16, Artola-Murua 8. Agirre-Erostarbe 16, Arandia-Arropide 10. Urdangarin-Maiza II.a 16, Arozena-Zugarramurdi 6, Aizpuru-Arrue 5, Gil-Iparragi-rre 16.

Benjaminen emaitzak: I. Urdanpilleta-E. Aburuza 16, Gokoetxea-Mendizabal 4. Ibañez-Agirrezabal 16, Jauregi-Goñi 7. Martinez-Iparragirre 16, Gil Marizkurrena 8. Zabala-Mendia 5, Salbarredi-Garziarena 16.

Gaurkoak

Gaur, Bidanian, kadeteen banakakoak jokatuko dira, 19:00etan. Agiriano Kruzen aurka, Iraola Arakistain arerio, Oartzabal eta Galarza, eta Esnaola eta Garcia.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!

HELBIDERATU ZURE KUOTA

EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

egunean 0,18 zentimoren truke buzoian

## GUTUN@K ▶

## Joseba Egibarri

Joseba Egibar, PNVko *majoa*, Lizartzako alkate omen zara.

Jada 3 urte baino gehiago pasatu dira herriko ezker abertzaleak gonbidaturik zure nahien berri herrian agertu zenuenetik. Bertan argi utzi zenuen hauteskundeetan herritarrek erabakitakoa errespetatuko zenuela eta beste hitz polit asko ere esan zenituen.

Hauteskundeak eta gero bilera gutxi batzuk egin genituen, Axurdario herri plataformakoak gehiengo lorturik, zegozkien karguak har zituzten. Zure proposamena Axurdario

herri plataformak lan egin eta ados bazeunden oniritzia emango zenuela, bestela horrek konpon. PNVk Euskal herrirako daraman politika bezala. Zuk hainbestetan diozun moduan Espainiak Euskal Herriko erabakia aintzat hartu behar du. Zuk noiz errespetatu behar duzu Lizartzako herriaren erabakia?

Loreg legea martxan jartzeko asmoa ere agertu zenuen *mandamasek* geldituaz zintuzten arte. Guri emandako argibidean, beste herriren batean eman behar zuten lehenik pausoa, eta ondoren, zuk herritarrek aukeratutako alkate eta zinegotziak beraien lana egin zezaten dimitituko zenuela zin

egin zenuen. Baina hala nola zure jokaera beste bide batetik joan da: herritarrei bizkarrak eman, jaramonik egin ez eta zure nahiak aurrera eramanez. Gai desberdinak direla eta behin baino gehiagotan eskatu dugu zurekin biltzeko beharra, erantzunik jaso gabe. Udalean urtetan komisio desberdinak egon dira lanean: kultura, hirigintza, jaiak... Alkate zaudenetik denak moztu dira, honek dakarren atzerapenarekin. Egin diren pleno bakanak isilean egin dira, herritarren parte-hartzerik gabe.

Herrian Udalak egin duen lan bakarra arau subsidiarioen aldaketa izan da, herriko etxe historiko handiena pribatizatzeko arriskuarekin, herritarren gehiengo aurka bada ere.

Zu, Egibar, jabetzen ez bazara ere, udaletxea herritarren gertuen dagoen instituzioa izanik, bertako herritarren esku egotea oso garrantzitsua da. Bertakoek baitakite hobekien herriak behar dituen dinamika bultzatu eta aurrera eramaten. Azken urte hauetan dinamika hauek jaso duten atzerapena oso traumatikoa izan da eta egoera kafkiano honi amaiera eman behar zaio ahalik eta azkarren. Beraz, badakizu zer egin behar duzun.

MAIDER AGIRREBARREN BELDARRAIN  
(AXURDARIO  
HERRI PLATAFORMA) ▶ LIZARTZA

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## OREXA ▶

## Telelaguntzari buruzko hitzaldia gaur udaletxean

Uli Mankomunitateak antolatu eta Kutzako ikasgelak sustatutako osasunari buruzko jardunaldien baitan, gaur 17:00etan, Orexako udaletxeko ganberan Telelaguntza jorrratuko dute. Hitzaldi honen helburua adinekoren esku euren beharrazane erantzuteko adituak direnekin etengabe harremanetan egoteko dituzten aukerei buruzko informazioa ematea izango da. Herritar guztiak daude gonbidatuta jardunaldira.

## BELAUNTZA ▶

## Tutorearen bisita izango du gaur KZguneak

Tutorearen bisita izango du gaur KZguneak, 09:00etatik 13:00etara. *Asteburu bat Euskal Herrian* mintegia ere eskainiko du, 10:00etatik 12:00etara.

## TELEFONOAK ▶

## Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amarozko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

## Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

## «Oso denboraldi ona egin du Lauburuk»

Taldeko arduradunak gustura daude nagusiek, jubenilek eta kadeteek denboraldi honetan egin duten lanarekin

## ERREDAKZIOA

«Balantze oso ona egin behar aurtengo denboraldian Ibarra areto futboleko hiru taldeek egindako lan bikaina kontuan hartuta». Hala adierazi du Ibarra areto prentsa arduradun Jose Manuel Tobias Romerok.

Euskal Txapelketan lehiatuko diren nagusien taldetik hasita, «denboraldi onenatariko

bat burutu dute». Cesar Rocaren mutilek hirugarren postuan amaitu dute, bigarren geratu den Logroñorekin berdinduta. Gorabehera handirik gabekoa izan da Liga ibartarrentzat, 18 garaipenekin, 4 berdinketa eta 6 porrotekin. Denera, 58 puntu batu dituzte, eta 4 puntura geratu dira Alaves-EHU taldearekiko. Ibarra talde hori zoriondu nahi izan

du («egin duen denboraldi onagatik»). Arduradunek, bestalde, iaz baino zorte handiagoa izan dutela lesioei dagokionez azaldu dute. «Jokalarien giro onak, eta bereziki beterranoen lanak ere zerikusi handia izan du lortutako emaitzetan».

Zaleek emandako laguntza ere goraipatu nahi izan dute Ibarra areto futbol taldeko arduradunek; «gainerako talde-

tan ikusi ez dugun bezala animatzen dute gurek, une gozotan nahiz gehien behar izan dugunean, eta hori eskertu beharra dago; halaber, herri bezala Ibarra talde moraliki nahiz ekonomikoki eman digun laguntza ezinbestekoa izan da aurrera egiteko, eta gure beharra dutenean edozertan laguntzeko prest izango gara».

## Gaztetxoak ere bikain

Jubenilen eta kadeteen taldeek, berriz, denboraldi bikaina egin dute, eta biak ala biak postu gorenean amaitzerik izan dira. «Gazteak nola datozen ikusita nagusien taldeak maila ona lortzeko jokalaririk izango ditu aurrera begira; horretarako, ordea, gazte hauek animatu eta motibatuta beharko dira», gehitu dute arduradunek.

## GAZTELU ▶ KULTURA

## Goienetxe eta Arakamaren doinu bereziak

**Erredakzioa** ▶ Uli Mankomunitateak iragan asteburuan Gazteluko elkartearen antolatutako Donato Goienetxeren eta Xabier Arakamaren trikititza eta perkusio kontzertua «oso interesgarria eta berezia» izan zen. 25 lagun inguru bertaratu ziren bi musikariren doinuekin gozatzerako. Panderoaren ordez, trikititza afrikar jatorriko hainbat tresna izan zituen laguntzaile: bongoak, afrikar danborra, marimba, drbuka... eta musika mota desberdinak jorratu zituzten. HITZA



LEITZA ▶ GIZARTEA

# Olioia jasotzeko gorri koloreko edukiontziak jarri ditu Udalak

Aurrerantzean sukaldean erabilitako olioia plastikozko ontzi batean jaso eta edukiontzi horietara bota beharko da

JAIONE ASTIBIA

Sukaldean erabilitako olioia birziklatzeko beste modu bat jarri du Udalak: aurrerantzean, dagoeneko herriko zazpi lekutan kokatuta dauden edukiontzi gorri-laranja kolorekoan bilduko dute.

Etxez etxe esku-orri bidez banatu du informazioa. Bertan argitu du herritarrek nola egin behar duten olioia jasotzeko ahalegin hori.

Kartoia jasotzeko edukiontzi urdinak, beirarentzat igloo tankerakoak, eta bestelako zaborentzat edukiontzi berdeak zeuden bezala, etxeko olioia jasotzera hilean behin etortzen



Olioaren edukiontzia. J. ASTIBIA

zen Ecogras enpresako furgoneta herriko plazara: orain eginkizun honetarako gorri koloreko edukiontziak jarri dituz-

te besteen ondoan, auzoz auzo banatuta.

Hala, «plastikozko edozein ontzitan» olioia jasoz joan eta «behin beteta dagoenean, ongi itxi eta edukiontzian utzi» behar dela jakinarazi dute. Edukiontzi hauek gainekaldean bina estalki dituzte, hori ireki eta olio-ontziak bertan sartzeko. Oroitarazi dutenez, olio hau birziklatuz, biodiesel egiten dute; eta, era berean, olioarekin batera jasoko dituzten «ontzi guztiak ere birziklatu» egingen omen dituzte.

«Hodidak ez tratatzea, uren kutsaketa eta baliabide bat alferrik galtzea eragozte» du helburu.

LEITZA ▶ XXVIII. KULTUR ASTEA

## Emakumeen Eskubideen Karta eztabaidatu dute

Kultur Asteko aurreneko ekitaldia izan da; gaur, Iztuetaren diapositaba emanaldia

J. ASTIBIA

1995. urtean Quebecen egin zuten Emakumeen Mundu Martxatik hasi eta gaur egun, eztabaida fasean dagoen Euskal Emakumeen Eskubideen Gutunaren sarrerako adierazpena eztabaidaketa eginez ere, herenegun, Euskal Herriko mugimendu feministako kide Miren Arangurenen izan zuten gidari Aurrerara bildu ziren lagunek.

Bilakaerari erreparosa egin ondoren, Eskubideen Kartaz jardun zuten: emakumeen aurkako bortxakeria, parekidetasuna, estereotipo fisikoak, kanpoko eta etxeko lanen banaketa, sexualitatea... ekarpenak eginez. Ekimeari jarraipena emanez, landu eta aurrerago datozen urratsetan parte hartzeko bidea ireki zuten, hala.



Aranguren, azalpenekoan. J. A.

### EGITARAUA ▶

#### GAUR

20:00. Zinema aretoan, *Nairobiarraren bidaia*, Josu Iztuetarekin.

#### BIHAR

20:00. Zinema aretoan, *Malawi bizikletaz*, Haitzol Olaitzekin.

TURISMOA ▶

### Informatzaile turistikoak behar da Plazaolarako

Plazaolako Patzuergo turistikoak jakinarazi duenez, aurtengo udarako, «ekainetik irailerako lan kontratua izanen duen» informatzaile turistiko baten beharra dute. Eskaerak egiteko epea, hil honen 31n bukatuko da, egoitzan bertan. «Arloan aritu izana kontuan» hartuko dute eta hizkuntz eskakizunei dagokienez, «euskara maila ona» beharrezko da. Informazio gehiagorako, [www.plazaola.org](http://www.plazaola.org) helbidera edo 948 50 72 05 telefono zenbakira jo omen daiteke.

KULTURA ▶

### Eskualdeko bost ikastetxetako ikasle musikariak

Leitzako Amazabal BHian ikasten duten ikasleekin batera, Bera, Doneztebe, Lekaroz eta Altsasuko beste 500 ikaslek kontzertua eskaini zuten atzo aratsaldean pilotalekuan. Musika irakasleak zuzendari zituztela, euskal kantak ez ezik (Lete, Lertxundi...), nazioarteko doinuak (Kuba, Grezia) eta estilo desberdinetakoak, gainera, eskaini zituzten; baita dantzatu eta kantatu ere. Aitatzekoa ikasle batek konposatutako doinu bat ere jo izana, xirula, biolin, piano, bateria soinuak.



Lehenengo planoan bertakoak direla, ikasle musikariak lanean, zuzendariari adi. JAIONE ASTIBIA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
[tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)

HITZA guztietan prezio beragatik

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Ibarra.** Txosna batzordeak deitutako bilera. 20:00etan, Kultur Etxean.

**Ibarra.** San Bartolome jaietako Koadrilen Eguna antolatze bilerara. Bihar, 20:00etan, Sendi-Ekintza elkartearen.

**Tolosaldea.** Galtzaundi Euskara Taldeak igandean Elorrioren izango den Ibilaldira joateko autobusa antolatu du. Izen-ematea, elkartearen (Nafarroa et., 6. Tolosa).

### ERAKUSKETAK

**Ibarra.** Ingrid Buchwald ibartarraren animazio digitalak eta margolanak. Etzi bitarte, Kultur Etxean.  
**Tolosa.** Iñaki Olazabalen eskulturak. Larunbata arte, Aranburu Jauregian.  
**Tolosa.** Amigos de Cuba y P'alante taldearen erakusketa. Aste osoan, Kultur Etxean.

### HITZALDIAK

**Ibarra.** *Gerra zibila Euskal Herrian.* Juan Ignacio Ramosen eskutik. Bihar, 19:00etan, Gaztetxean. Maiatza Gorria-ren baitan.

### MUSIKA

**Tolosa.** Lau Haizetara orkestra. 19:00etan, Musika Eskolan. XII. Musikariaren baitan.

### ZINE-KLUBA

**Alegia.** François Ozon zuzendariaren *8 mujeres*. 21:30ean, Gaztetxean.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
Leitza, Larraia M. I. Elbarren 95, 112.  
Tolosa, Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10, 943 67 24 38.

### IRRATIA

**Txolarre irratiak**  
(107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepaso, albisteak, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
18:00-19:00. *Irauli uhinak*.  
21:00-22:00. *Bide okerretik*.  
22:00-23:00. *Street noise*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Amasara bidean hamaiketako egiteko gelditu ziren ibiltariak. HITZA



Gazteboak eta begiraleak, behin ibilaldia amaituta, bazkaltzen. HITZA

# Kirikiño Eguna, jai giroan

**TOLOSA ▶** Kirikiño aisialdi taldeko 250 gaztek, begiralek eta senitartekok ikasturte bukaerako festa ospatu dute



Jaialdian parte hartu zuten gazteek, begiraleek eta baita gurasoek ere. HITZA

### ERREDAKZIOA

Tolosako tren geltokian zuten hitzordua igandean Kirikiño aisialdi taldekoek. Kirikiño Eguna ospatzeko irrikaz, 09:00etan 250 lagun (gazte, begirale eta senitarteko) elkartu eta tipi-tapa Izaskunera abiatu ziren. «Ur pixka bat edan ondoren, Uzturreri buelta eman genion Belabieta alde-tik. 14:00etarako Amasako parkera iritsi ginen. Nahiko nekatuta geunden, baina pozik ere bai: bide osoa egiteko gai izan ginen eta, gainera, eguraldia lagun genuen», azaldu dute.

Iritsi bezain laster eukaristia ospatu zuten, «denok elkarrekin gogoratu urtean edukitako hutsak eta eskerrak emanez horrelako egunak ospatzeko aukera dugulako». Eukaristia bukatzerakoan bazkaltzeko ordua iritsi zen; «hortxe agertu ziren patata tortila, xerra, xolomo, oilasko petxuga, urdaiazpiko... otartekoak. Ederki bazkaldu ondoren begiraleek kafea eskaini zuten, eta gustura arratsaldeko jaialdia ikusteko prestatu ginen». Jaialdi horretan denek hartu zuten parte: haurrek, taldeka prestatutako aktuzioekin; gurasoek, jolas batzuetan boluntario bezala; eta baita begiraleek ere, dantza eta kanta emanaldi batekin.

Arratsaldeko azken unea Helduak II-koei Kirikiño bezala sei urte igaro ondoren agurra egiteko unea izan zen: «Begiraleek argazkiekin egindako oparitxoak, gaztetxoek begiraleei prestatutako opariak eta, ohitura den bezala, *manteoa*».

Jaialdia amaituta, dena jaso eta, seiak aldera, Villabonan tren hartu eta Tolosara itzuli ziren guztiak, «oso nekatuta baina oso pozik» igarotako egunaren ondoren.

## AGURRAK ▶



### URTE ASKOAN

Unai Altuna (Alegia). 3 urte. Zorionak familiaren eta bereziki bere anaia Gorkaren partetik.



### ZORIONAK

Irati. Gaur 3 urte betetzen ditu. Eneko, ama eta aitaren partetik.

### URTE ASKOAN

Amalur Galarraza (Amasa-Villabona). Gaur 2 urte. Zorionak etheko sorginari. Aitaboa, amaboa eta Eñauten partez. Bi miñu potolo!

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...